Lezoko Unibertsitateko Udala

# LEZO EGINEZ

¿!?¡

HIRIGINTZA-PLAN OROKORRAREN AURRERAPEN DOKUMENTUA

DOCUMENTO DE AVANCE DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA



# <<<LEZO EGINEZ>>>

Herritarrek eta komunitateak hirigintzaren antolamenduan parte hartu eta protagonista izan behar dute, herritarren bizitza-kalitatean nahiz komunitatearen historian, kulturan eta garapenean eragiten duten parametroak antolaketa honen baitan baitaude. Honela, Lezoko udalak hainbat prozesu aurrera eraman zituen 2000 urte inguruan "Lezoko hirigintza planari buruzko herritarren proposamena" eta "Lezo Bihar hausnarketa estrategikorako prozesua".

Oraingoan udal tramiteekin batera, lau fasetan bereizitako prozesuan herritarren parte-hartzea bilatzen da.

Ikasi, Ezagutu, Proposatu eta Eztabaidatu faseetan herritarrei informazioa emateaz gain, eztabaidarako eta ekarpenak egiteko aukera dugu.

El/la ciudadano/ciudadana y la comunidad tienen que ser participes y protagonistas de la ordenación urbanística, ya que de esa ordenación dependerán parámetros que afectan tanto a su calidad de vida, así como a la propia historia, cultura y desarrollo de la comunidad. El ayuntamiento impulsó diferentes procesos de información y participación hacia el año 2000 "propuesta ciudadana en torno al planeamiento Urbanistico de Lezo" y "Lezo Bihar proceso de reflexión estratégica".

Esta vez, junto con los tramites administrativos el ayuntamiento ha emprendido un nuevo proceso de participación que se llevará a cabo en cuatro fases.

Aprender, Conocer, Proponer y Debatir. Con este proceso además de informar a los/las vecinos/vecinas de Lezo, tenemos una oportunidad para las aportaciones y el debate.

**Haritz Salaberria Goikoetxea** ALKATEA

**Irati Aranburu Salaberria** HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ZINEGOTZI DELEGATUA



# <<<MAHAI INGURUETAKO EDUKIA >>>

## JUAN CRUZ ALBERDI



BEHEMENDIKO GERENTEA ETA
EHUKO GEOGRAFIA IRAKASLEA

<<<< [Lau haizetako parke periurbanoa] Justifikatzen da, ez baserritarrek eginiko presioarengatik, baizik eta bertako bizilagunek eginiko presioarengatik. Hori inportantea da. Hemen Gipuzkoa bizi da, Gipuzkoako biztanleen ia bi heren bailara honetan bizi da. Presioa egiten badute instituzioak "plakatu" egiten dira.
[Tolosaldean agenda 21] Tolosaldean urte askoz ekonomikoki ongi joan dira, langabeziarik ez dago. Hortaz, enpresa gehiago ez dituzte nahi. Herria haztea nahi dute, baina bertako jendearentzat. Ez dute herria etxez bete nahi (beste herri askotan geratu den bezala); populazioa igotzeko? Zertarako? Iritsi diren ondorioa da, nahi dutena eurek euren lurrak gestionatzea dela. Ez daitezela kanpotik, euren lurrak gestionatzera joan >>><

## IÑAKI ANTIGUEDAD

HIDROGEOLOGIA KATEDRADUNA ETA EHUKO
IRAKASLEA

<<< Baten batek pentsatu dezake gaurko hazkunde ekonomiko hau, gero eta errekurtso gehiago ustiatzen dituena eta gero eta hondakin gehiago botatzen dituena, posible dela mantentzea? Hori (ez dela posible) esanda dago hainbat eta hainbat dokumentutan, Nazio Batuak izan, UNESCO izan…Honek badu muga bat.
Desafiorik edo erronkarik handiena azpiegituren kontuan da esatea: noiz da nahiko? Noiz da nahikoa gure errepideetan? Noiz gure instalazio energetikoetan? Non dago muga? Lurra betetzean non dago muga? Zein da tranpa? AHTa ez datorrela errepide baten ordez, baizik eta dauden errepideen alboan gehitzera.



Beraz, zarata gutxiago (errepidearen aldean), energia gutxiago… bai, baina (lehendik dagoenari) batutzera >>>>>>>><



## JULIA SAN JOSÉ

### Doctora

<<<<< Organización Mundial de la Salud: En la mayoría de las enfermedades el origen es medio ambiental.

Un estudio Europeo: los días de mayores picos de contaminación en nuestro entorno, en nuestras ciudades, aumentaban enfermedades cardio vasculares y la mortalidad global (hasta 4-5 veces más) >>>>><

## IÑAKI AZKARATE

### Biologoa eta Errenteriako udaleko Ingurumen Teknikaria

<<< Konponbidea ez da bakarra; kutsadura iturria ez delako bakarra. Konponbidea etorriko da ekintza desberdinak (hirigintza arloan, mugikortasunari lotuta, industria arloan,



sentsibilizazioa, parte hartze soziala) bideratzetik. Ez bide bakarretik.

Hirigintza planeamentuetan beste faktore inportantea mugikortasun peatonala indartzea da. Orain arte irizpidea izan da etxe guztietara iritsi ahal izatea kotxez. Zorionez, parametro hori aldatzen ari da. Bizi kalitatea ez dator kotxea etxe azpian egotetik, baizik, kale seguruak, garbiak eta kutsatu gabeak izatetik >>>>>>>><

## IÑIGO MAGUREGI

### Eusko Jaurlaritzako Lurzorua eta Hirigintza Saileko Zuzendaria

<<<<< En los demás paises de Europa se estaba hablando de que la plusvalía urbanistica era de la administración pública y por lo tanto cuando una administración publica decidia hacer un desarrollo urbanístico, obtenía previamente el suelo. En el estado Español se da la plusvalía al propietario pribado del suelo.

En otras culturas cuesta entender que un suelo pueda multiplicar por 3 o 4 su valor, por el mero de hecho de recalificarlos como suelo urbanizable. La vivienda tiene el mismo rango de protección que el derecho a la educación o sanidad. También es verdad que cuando uno accede a la sanidad o accede a la educación, accede a un servicio publico, nadie se compra la sanidad… Mucha gente cuestiona porqué las viviendas protegidas se venden... Porqué ese servicio público se privatiza.



Con un servicio publico de alquiler suficientemente dimensionado, en la Comunidad Autonoma Vasca, podríarmos estar hablando de 42 mil viviendas. Estamos en 8 mil >>>>><



## JESUS Mª ALQUEZAR

Jaizkibelgo balioetan aditua eta Vasco de Camping Elkarteko Lehendakaria

<<<< Destruir ésto [Jaizkibel] es una barbaridad.
Es una pérdida de un patrimonio natural.
Yo estoy convencido que eso tiene que quedar en Euskal Herria >>><

## JABI BELZA

Economista

<<<<<< La idea es continuar los dos puertos. El de ahora y el exterior, por eso le llaman siempre dársena. Todo documento oficial le llama dársena exterior.
Hay que meter por Lezo, por esos túneles, 25 millones de metros cubicos de material de cantera… En diez años de obra a mi me salen que son unos 2 millones de viajes de camión de ida, dos millones de viajes de vuelta. Eso supone durante diez años 7 camiones cada minuto entrando por ese tunel, durante hocho horas diarias y todos los días de la semana, menos festivos.

En este momento el puerto está moviendo entre 5 y 6 millones de toneladas. Este es un estudio de la Autoridad Portuaria, en el que preveían entre el puerto actual y el exterior sumarían 8,2 millones de toneladas… Para una idea de magnitud el puerto de Bilbao está desembarcando ahora 36 millones de toneladas y caben en puerto de Bilbao 90 millones de toneladas… El plan de usos portuarios admite hasta 11 millones de tonelas que puede trabajar el puerto actual.
El estudio económico que hizo LKS… fijaros como compara este puerto: …la inversión puede ser como la construcción de una catedral que sí moviliza recursos en un momento pero no tiene finalmente justificación economica… En este



momento la única justificación es la mejora de la calidad de vida de las personas.
De los 700 empleos que se dicen que se van a crear, 300 son de conductor de camión. Estamos diciendo que va ser un puerto que va a disminuir el trafico de camiones, que se va a conectar por ferrocarril y por otra parte los estudios dicen que se va a aumentar el movimiento de camiones. Y sobre todo, atribuye 100 empleados en pesca… >><<><

>><<><<<<

## HIRIGINTZA –PLAN OROKORRAREN AURRERAPEN DOKUMENTUA.

Eskuen artean duzun liburuxka, egun herriak dituen egiturazko arazoei irtenbidea topatzeko helburuz udala lantzen ari den proposamena da.
Egunerokoan lezoarron bizi-kalitatea baldintzatzen duten hainbat faktore daude. Batetik, herria zatitzen duten eta trafiko handia darabilten bi errepide nagusi ditugularik, Gaintxurizketa Bidea eta Jaizkibel Hiribidea, herritarroi ia ezinezko zaigu libreki eta lasai mugitzea. Halaber, trafikoa da herriko kutsadura-iturri nagusietako bat.

Bestetik, ezkuta ezina da Portuko jarduerek herrian duten eragina, bai trafikoari dagokionean eta bai kutsadurari dagokionean. Azpimarratu behar da ordea, portua bera ez dela arazo, portuko zenbait jarduera eta hauen kontrol-eza baizik.

Ezin aipatu gabe utzi udalaz gaindiko erakundeek herrirako dituzten proiektuak; Kanpo-kaia eta honi loturiko garraiorako logistika-plataformak zein AHTrako loturak, N-1ren saihesbide berria, e.a. Finean, herria gehiago zatitzea, inguruko herriekiko komunikazioa zailtzea eta trafikoa areagotzea ekarriko luketen proiektuak, herriaren etorkizuneko garapena guztiz baldintzatuz. Azkenik, landa-eremuak babesik ez izateak, horrelako asmoei bidea errazten die.

Herriak dituen baldintzez nahiz mehatxuez jabeturik, egoera aldatu asmoz eta herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera, udalak, ondorengo helburuak eta proposamenak aurkezten dizkizu.

# <<<LEZO EGINEZ>>>

## DOCUMENTO DE AVANCE DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.

Ésta es una propuesta para dar solución a los problemas estructurales que tiene el municipio. Son diversos los factores que condicionan la calidad de vida de los/las lezoarras. Por un lado, las carreteras Gaintxurizketa Bidea y Jaizkibel Hiribidea, uno de los pricipales focos de contaminación y con elevado tránsito de vehículos pesados, son infraestructuras que dividen el núcleo urbano y hacen que la movilidad de los/las Lezoarras esté gravemente perjudicada. Por otra parte, Lezo siempre ha convivido con el puerto y así queremos que sea también en el futuro. Sin embargo, es innegable el impacto que tienen las actividades portuarias en el municipio, tanto en el trafico como en la contaminación, debido a la falta de control y la dejadez de las autoridades competentes durante todo este tiempo.

Si a ésto le añadimos los proyectos que tienen para Lezo las autoridades supramunicipales, tales como el puerto exterior, plataformas logísticas, conexiones al TAV, desdoblamiento de la N-1, etc., todos ellos dirigidos al transporte, la situación y por consiguiente, la calidad de vida de los/las lezoarras, en vez de mejorar empeorará considerablemente; el municipio quedará aún más dividido, la comunicación con los pueblos de alrededor se dificultará, el tráfico aumentará y el desarrollo de Lezo en el futuro estará totalmente condicionada. Por último, la falta de protección jurídica de la actividad del medio rural y el futuro incierto de la misma, hacen que dicha zona sea más frágil frente a los proyectos mencionados.

Conscientes tanto de las condiciones actuales como de las futuras amenazas, y de cara a mejorar la calidad de vida de los/las lezoarras, el ayuntamiento le presenta los siguientes objetivos y propuestas para el futuro del municipio.



# Helburuak>>

▶ Herrigunea indartzea. Batetik, egungo auzoen birgaitzearen eta kohesionatzearen bitartez eta bestetik, herrigunea herritarrentzat erakargarri bihurtuz, honetarako sozializazio-guneak eskainiz, hala nola ekipamenduak, zerbitzuak, jolas-parkeak eta herri-inguruko parkeak.

▶ Landa-ingurunea babestea. Bai herriko nekazaritza indartzeko eta bai aisialdian gozatzeko.

▶ Kutsadura murriztea. Trafiko astuna herrigunetik ateratzeko, saihesbide alternatiboen bidez nahiz portuko antolamenduan alternatibak landuz eta bertako jardueren kontrol zorrotza eginez.

# Objetivos>>

▶ Potenciar el núcleo urbano. Por un lado, mediante la regeneración y cohesión de los barrios, y por otro, haciendo del núcleo urbano un lugar atractivo para los habitantes, ofreciendo para ello zonas de socialización como son los equipamientos, servicios o parques urbanos y periurbanos.

▶ Protección del medio rural. Con el fin de potenciar la agricultura y para el uso y disfrute de los lezoarras.

▶ Disminuir la contaminación. Propuesta de alternativas para el transporte y la ordenación del puerto, con el objetivo de sacar el tráfico pesado del núcleo urbano y realizar un control exhaustivo de las acitividades portuarias respectivamente.

# PROPOSAMENAK >>>

## AZPIEGITURAK

**a)** Herriko industria-trafikoa Lanbarrengo biribilgunera bideratu eta N-1 errepidearen zabaltzea Gaintxurizketatik Lezora.
**b)** Pasai Donibaneko trafikoa portuko saihesbide berritik bideratu.
**c)** Oinezkoentzat eta bizikletentzat bidegorria Lezo eta Gaintxurizketa artean.
**d)**Aparkalekuak.

## ETXEBIZITZAK

**a)** Egun okupatuta dauden zenbait lurretan 779 etxebizitza berri, 401 salmenta librekoak eta 378 babestuak (1-Sektorean 120; Altzaten 83; Zelain 150; Maintzinen 26; Algeposan 300; Arraitokin 100 edo Olatzarren 120).
**b)** Babes sozialeko alokairuzko 100 apartamentu 1-Sektorean eta Algeposan.

## EKONOMIA-JARDUERAK

**a)** Herriguneko zenbait eremuren birgaitzerako lantegien lekualdaketa egin beharko dela-eta, eta bestetik, herriko zenbait lantegiren handitzea aurreikusiz, bi aukera proposatzen dira, Gaintxurizketan (14Ha) ala Sagastiberrin (11Ha).
**b)** Landa-eremuaren garapen sozioekonomikorako motore izango den eremua (20Ha).

## EKIPAMENDUAK

**a)** Eguneko Zentrua eta babespeko 8 apartamentu Auñamendin.
**b)** Markesane Kultur Zentrua garai bateko Pildain eskolen eremuan.
**c)** Osasun-beharretarako eremua 1-Sektorean
**d)** Hezkuntza-beharretarako eremua 1-Sektorean.
**e)** Bekoerrota kiroldegia handitzeko eremua Arraitokin.
**g)** Hilerria handitzeko eremua Olatzarren.

## PARKEAK ETA BABES-EREMUAK

**a)** Parke publikoa Xoxolurran (25.570 $m^2$).
**b)** Parke publikoa Olatzarren (10.000 $m^2$).
**c)** Herriondo babestu bailararen paisai balioa indartuz.
**d)** Herriondo-Amuntene-Urrullo-Jaizkibel Korridore Ekologikoa.
**e)** Jaizkibeli eremu ezberdinen ezaugarrien araberako babes-sailkapena eman.



# <<<<Propuestas

## Infraestructuras

**a)** Desplazamiento de todo el tráfico industrial municipal a la rotonda de Lanbarren y desdoblamiento de la N-1 desde Gaintxurizketa a Lezo.
**b)** Desviación de los tráficos procedentes de Pasai Donibane mediante la creación de una variante periférica al Casco Histórico.
**c)** Red peatonal y ciclista desde el casco de Lezo hasta Gaintxurizketa.
**d)** Aparcamientos.

## Vivienda

**a)** Desarrollo de 779 nuevas viviendas, 401 libres y 378 protegidas, mediante la regeneración de suelos actualmente ocupados en: Sector 1 (120); Altzate (83); Zelai (150); Maintzine (26); Algeposa (300) y Arraitoki (100) ú Olatzar (120).
**b)** Ejecución de 100 alojamientos dotacionales en alquiler social en Sector 1 y Algeposa.

## Actividades económicas

**a)** Se plantean dos alternativas para el traslado y reubicación de las industrias situadas en el casco urbano que deben desplazarse para su regeneración, y para ampliación de industrias existentes en el municipio: Gaintxurizketa (14 Ha) ó Sagastiberri (11 Ha).
**b)** Creación de una zona motor para el desarrollo socioeconómico del medio rural (20 Ha).

## Equipamientos

**a)** Realización de un Centro de Día y 8 apartamentos tutelados en Auñamendi.
**b)** Creación del centro cultural Markesane en el espacio donde se situaban las escuelas Pildain.
**c)** Nuevo área para necesidades sanitarias en el Sector 1.
**d)** Nuevo área educacional en el Sector 1.
**e)** Espacio para la ampliación del polideportivo en Arraitoki.
**f)** Nuevo frontón descubierto en Altzate.
**g)** Ampliación del cementerio municipal.

## Parques y zonas de protección

**a)** Parque público en Xoxolurra (25.570 m²).
**b)** Parque público en Olatzar (10.000 m²).
**c)** Protección de Herriondo potenciando su alto valor paisajístico.
**d)** Corredor ecológico Herriondo-Amuntene-Urrullo-Jaizkibel.
**e)** Protección jurídica de Jaizkibel, según características de cada zona.




1.SEKTOREA
OLATZAR
ALGEPOSA
2
ZELAI
MAINTZINE
ARRAITOKI
ALTZATE
EZAGUTU


3
1
EKONOMIA-JARDUERAK
ACTIVIDADES ECONOMICAS
Industriagunerako lur erreserba 11 Ha
Industriagunerako lur erreserba 14 Ha (alternatiba)
Landa eremuaren garapen sozioeko-nomikorako gunea 20Ha
1 N1 zabaltzea
2 Portuko saihesbidea
3 N1era lotura

# LURZORU EZ-URBANIZAGARRIAREN BABESA



**BABES SAILKAPENA**
CLASIFICACCION DE PROTECCION

- Babes bereziko eremua
  Área de especial protección
- Basoaldea
  Forestal
- Abel-, nekazal-lur eta landazabala
  Agroganadero y campiña
- Azaleko uren babesa
  Protección de aguas superficiales



**GAINJARRITAKO BALDINTZAK**
CONDICIONANTES SUPERPUESTOS

- Jaizkibel GKL
  Jaizkibel LIC
- Korridore ekologikoa
  Corredor ecológico
- Eremu higakorrak
  Áreas erosionables
- Kutsatzeko kalteberak diren lurpeko uren eremuak
  Áreas vulnerables a la contaminación de acuíferos


EKIPAMENDUAK / EQUIPAMIENTOS
1 Eguneko Zentrua eta babespeko 8 apartamentu
Centro de Día y 8 apartamentos tutelados
2 Markesane Kultur Zentrua / Centro Cultural Markesane
3 Osasun-beharretarako eremua
Nuevo área para necesidades sanitarias
4 Hezkuntza-beharretarako eremua
Nuevo área educacional
5 Bekoerrota kiroldegia handitzeko eremua
Espacio para la ampliación del polideportivo
6 Pilotaleku ireki berria / Nuevo frontón descubierto
7 Hilerria handitzeko eremua
Ampliación del cementerio municipal
PARKE PUBLIKOAK / PARQUES PÚBLICOS
8 Xoxolurra (25.570 m2).
9 Olatzar (10.000 m2)

# 1-SEKTOREA









# ALTZATE-BERRI

## 1-SEKTOREA

- Bizitokiak
- Alokairuzko babespeko apartamentuak
- Hezkutza- eta osasun-beharretarako eremua

- Viviendas
- Alojamientos dotacionales de alquiler social
- Área para necesidades sanitarias y educacionales

## ALTZATE-BERRI

- Bizitokiak
- Jolas-parkea eta pilotaleku irekia

- Viviendas
- Parque infantil y frontón descubierto





ZELAI

ALGEPOSA





## ZELAI

▶ Eremuaren birgaitzea egungo lantegien lekualdaketaz eta eremua bizitoki bihurtuz

▶ Regeneración urbana de todo el espacio, mediante traslado de las empresas existentes

## ALGEPOSA

▶ Eremuaren birgaitzea, industri aktibitatea antolatuz eta arautuz, enpresaren zati bat lekualdatuz eta bestetik, eremua bizitoki bihurtuz
▶ Alokairuzko babespeko apartamentuak
▶ Aparkalekuak

▶ Regeneración urbana, controlando y regulando la actividad industrial, trasladando una parte de la empresa, así como creando un nuevo espacio para viviendas
▶ Alojamientos dotacionales de alquiler social
▶ Aparcamientos

## MAINTZINE









## ARRAITOKI

## ARRAITOKI

▶ Eremuaren birgaitzea herritarren erabilerara bideratuz, bizitokien eta komertziorako eraikinaren bidez

▶ Kiroldegiaren etorkizuneko beharretarako eremua

▶ Regeneración de la zona mediante viviendas, edificio para uso comercial-servicios y zona para disfrute de los y las lezoarras

▶ Área para la futura ampliación del polideportivo municipal

## MAINTZINE

▶ Eremuaren antolaketa hobetzeko etxebizitzen bi eraikin

▶ Desbloquear y mejorar la ordenación de la zona, construyendo dos edificios para viviendas





# OLATZAR

## OLATZAR

- Bizitokietarako lur-okupazio berria, soilik Arraitokiren alternatiba modura
- Parke publikoa
- Hilerriaren etorkizuneko beharretarako eremua

- Nueva ocupación residencial de suelo no urbanizable, únicamente como alternativa a Arraitoki
- Parque público
- Área para futuras necesidades de ampliación del cementerio municipal

AURRERAPEN DOKUMENTUARI EKARPENAK URRIA BUKAERA BITARTE EGIN AHAL IZANGO ZAIZKIO.
HONETARAKO BIDE EZBERDINAK IZANGO DIRA.

- Ohiko bidea, udaleko erregistroan,  posta bidez erregistrora bidaliz edo udaleko arkitekto aholkulariaren arreta presentzialean (kultur aretoan astelehenetan 16:00-19:00).
- Herritarren arreta-zerbitzurako telefonoaren bitartez: 943521538 (astelehenetan 16:00-19:00).
- Udalaren web-orriaren bitartez  (www.lezo.net).
- Herrian zenbait tokitan horretarako jarritako postontzietan liburuxka honekin batera bidali zaizun postala sartuz.

Ekarpen guztiak jaso eta aztertuko dira.
Hurrengo fasean hauen inguruan eztabaidatuko da eta dokumentuak zeintzuk jaso behar dituen erabakiko.

LAS PROPUESTAS AL DOCUMENTO DE AVANCE SE PODRÁN HACER HASTA FINALES DE OCTUBRE,
UTILIZANDO DIFERENTES MEDIOS.

- El medio habitual en el registro del ayuntamiento, por correo dirigiéndose al registro, o mediante la atención presencial del arquitecto asesor municipal (en la sala de cultura de la calle Donibane los lunes de16:00 a 19:00).
- Servicio de atención en el teléfono 943521538 (los lunes 16:00-19:00).
- Pagina web del ayuntamiento (www.lezo.net).
- Introduciendo las postales entregadas junto con este documento, en los buzones que se encontrarán en diferentes puntos de Lezo para la recogida de propuestas.

Todas las propuestas serán recogidas y tenidas en cuenta. En la siguiente fase se discutirá sobre ellas y se decidirá cuales quedarán recogidas en el documento.

# DVD-A NOLA ERABILI

## CÓMO UTILIZAR EL DVD

DVD honek bi atal ditu, batetik, Lezo Eginez prozesuaren hasieran antolatutako mahai-inguruen zatiak ikus daitezke DVDko menuaren bidez eta bestetik, Hirigintza-Plan Orokorraren aurrerapen dokumentu osoa eskura daiteke.

Este DVD contiene dos apartados, cortes de las mesas redondas realizadas al comienzo del proceso Lezo Eginez y el Documento de Avance del Plan General de Ordenación Urbana.

**Telebistaz ikusteko:** DVDaren bidez. Menuan dauden aukeretan klikatuz mahai-inguruen bideoak eta planoak ikusi ahal izango dira. Telebistaz ez dago dokumentua ikusteko modurik. **Ordenagailuz ikusteko:** Menuan sartzeko: Nire PC>DVDren ikonoan bi klik egin. **Dokumentu osoa ikusteko:** Nire PC>DVDren ikonoan arratoiaren eskuineko botoiarekin klikatu>Ireki>Lezo Eginez>Diapositibak>Hirigintza-Plana

**Por TV**: Mediante el DVD, accediendo al menú. Sólo se podrán visualizar las mesas redondas y los planos. **Por ordenador:** Para acceder al menú: Mi PC> dos cliks en el icono del DVD **Para visualizar el documento íntegro:** Mi PC> clik con el botón derecho del ratón en el icono del DVD>Abrir>Lezo Eginez> Diapositivas>Plan General

Lezoko Unibertsitateko Udala